

ARTgia erakusketa eta hedapen deialdia

Deialdi honen bidez, Arabako artista berri zein ibilbidea duten artisten lana sustatu nahi du ARTgia sorgune & aretoak. Deialdiak ARTgia sorgune & aretoak abiarazten duen **ARTgia da** ildo estrategikoari erantzuten dio.

ARTgia da artista lokalei **erakusketa-gunea irekitzearen** aldeko apustua egiten du. Hala, beren artelanak ARTgia aretoan (Vitoria-Gasteizko Jose Lejarreta kalea 41 helbidean) erakustea eta hedatzea da asmoa. Proiektu irabazleek 400€ko diru-laguntza jasoko dute.

Deialdiak 2019ko maiatzaren 20tik ekainaren 10era bitartean egongo dira irekita, 23:59ak arte, eta horixe izango da proiektuak aurkezteko epea.

Deialdi hau hainbat agenteren eta erakunderen arteko lankidetzaren uzta da; hala nola, Kultur ACT elkarte artistiko eta kulturala, ARTgia aretoa eta Vitoria – Gasteizko Udalaren Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailaren finantzazioa.

Gasteizen, 2019ko maiatzaren 20an.



ARTgia da

Xedea

ARTgia da egitasmoak Arabako artistei ARTgia sorgune & aretoko **erakusketa-gunea irekitzearen** aldeko apustua egiten du, bertako artisten lana balioztatzea eta aitortzea helburu izanik, beraz, aukeratutako programa bakoitzak 400€ko diru-laguntza eskuratuko du.

ARTgia sorgune & aretoa topaketa, truke, hibridazio eta elkarrizketa artistikorako gunea izatea da xedea, artistei, sortzaileei, agente kulturaleri eta gizarte osoari oro har irekitakoa, non erdigunean egongo diren sormena, ikerketa, esperimentazioa, berrikuntza eta hedapen artistikoa.

Parte-hartzaileak

Arabari jaiotako diren edo bertan bizi/lan egiten duten artistek aurkeztu ahalko dituzte proiektuak. *ARTgia da* proiektuaren lan-ildoan ez dago mugarik ez parte-hartzaileen adinari dagokionez, ez gaiari, ez diziplinari dagokionez.

Partehartzaileen proiektuak ezezagunak izan behar dira, ezin izango dira publikoki aurkeztutako proiektuak aurkeztu.

Eskatzaileek prestakuntza edo ibilbide egiaztatua eduki beharko dute arteen arloan.

Proiektua egiteko epea

Erakusketek 20 eguneko iraupena izango dute gutxienez, eta ARTgia sorgune & aretoko zuzendaritzarekin hitzartuko dira erakusketa-datak.



Erakusketak 2019ko abuztuan hasiko dira.

Erakusketak	Datak
1. Erakusketa	Abuztuaren 26tik – irailaren 22ra
2. Erakusketa	Irailaren 25etik – urriaren 20ra
3. Erakusketa	Urriaren 23 – azaroaren 17ra
4. Erakusketa	Azaroaren 20tik – abenduaren 15era

Baliabideak

ARTgia sorgune & aretoak bere gain hartuko ditu konpromiso eta baliabide hauek eskuratzea:

- Artelanak erakusteko gunearen lagapena.
- Guneko argiaren, uraren eta alokairuaren kostua.
- Gunea irekita uzteko lan-orduen kostua.
- Lineaz kanpoko komunikazio-lanaren orduen kostuak.
- Lineako komunikazio-lanaren orduen kostuak.
- Garbiketaren kostuak.
- Laguntza eta erraztasun logistikoak (materialak, bitartekoak eta metodoak).
- Itzulpen zerbitzua.
- Diru laguntza.

Komunikazio guztiak ARTgia sorgune & aretoaren bitartez kudeatuko dira.

ARTgia sorgune & aretoak ez ditu bere gain hartuko konpromiso hauek:

- Inaugurazioko otorduen kostuak. Hala ere, dohaintza bat egingo du, inaugurazioa egitea errazteko.

Eskaerak aurkeztea eta emakidak jakinaraztea



Deialdiak **2019ko maiatzaren 20tik ekainaren 10era bitartean egongo dira irekita, 23:59ak arte**, eta horixe izango da proiektuak aurkezteko epea. Epea amaitu ondoren, ez da bestelako hautagaitzarik onartuko.

Eskaerak **artgiada@gmail.com** posta elektronikoa helbidearen bidez aurkeztuko dira.

Ekainaren 10etik epaimahaiak 15 egun naturaleko epea izango du deialdia ebazteko (balorazio – irizpideen arabera).

Artista bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu dezake. Proiektu bat baino gehiago bidalitz gero, aurkeztutako lehena bakarrik hartuko da kontuan.

Dokumentazioa osorik ez dagoen kasuetan, 48 orduko epea emango da hutsegiteak zuzentzeko, ARTgia sorgune & aretoak nahitaezko komunikazioa bidalita. Hautatutako pertsonen izenak publikoak izango dira.

Deialdi hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita 10 egun naturaleko epea emango da oinarriei buruzko kontsultak egiteko.

Eskatzen den dokumentazioa

Dokumentazioa ahal den bitartean **PDF formatuan** aurkeztuko da, hurrengo dokumentuekin:

- Deklarazio artistikoa.
- Curriculum Vitae artistikoa, proiekturik nabarmenenak eta erreferentziak sartuta.
 - Datu pertsonalak.
 - Izena, lehen abizena, bigarren abizena.
 - NAN edo nortasun dokumentua.
 - Telefonoa.
 - Helbidea.
 - Code postala.
 - Herrialdea, Probintzia.
 - Proiektu garrantzitsuenak eta erreferentziak.
- Egin nahi den proiektuaren txostena, irudiekin batera.
- Eskaera euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daiteke.



Hautapen-prozedura

Proiektuari ekiteko, deialdi publikoa egingo da, eta, horren bidez, artista arabarren **lau proiektu** hautatuko dira. Epaimahaia, besteak beste, irizpide hauetan oinarrituko du bere hautua: proposamenen berrikuntzan, originaltasunean eta aurkeztu diren proiektuen arteko fusio- edo hibridazio-aukeran.

Epaimahaia

Epaimahaia osatzen dute:

- Irantzu Lekue Madinabeitia: artista garaikide gasteiztarra.
- Anna Pinotti: gestore kulturala.
- Irene Intxausti Basilio: gestore kulturala.

Balorazio-irizpideak

Laguntzen onuradun izendatuko dira balorazio-irizpide hauen arabera puntuatze handiena eskuratzen duten eskatzaileak:

- Proiektu artistikoaren izaera berritzailea (%30).
- Proiektuaren kalitate artistiko eta interes soziala (%20).
- Emakumeen ahalduzeari eta pentsamendu kritikoari buruzko ildo kontzeptuala (%20).
- Euskara izatea transmisio-hizkuntza (%10).
- Eskatzailearen ibilbidea (%10).
- Proiektua baliabideei eta testuinguruari egokitzea (%10).

%50era ailegatzen ez diren proiektuak gutxietsiko dira.

Bestelako alderdiak

- Lehia-araubidean emango dira laguntzak.
- Batzordearen hautua apelaezina izango da.



- Epaimahaiak laguntza ez ematea erabaki dezake.

Betebeharrak

- Onuradunak ARTgiarekin hitzartzen duen lan-egutegian aurreikusitako epeetan garatu beharko du proiektua.
- ARTgia sorgune & aretoak egiten duen edozein hedapen edo argitalpen motatan bere izena aipatzeko baimena ematen du onuradunak, bai eta bere lana grafikoki erreproduzitzekoa ere.
- Bide aktiboan parte hartuko du prentsa-aurreko eta inaugurazioan.
- Onuradunak obra aurkezteko aktibitate bat garatzeko ardura hartzen du bere gain, disziplinaren arabera egokiena.
- Onuradunak ARTgia sorgune & aretoko instalazioak eta materialak behar bezala erabiltzeko konpromisoa hartzen du.
- Onuradunak ARTgia sorgune & aretoa aipatuko du programan ekoiztiko piezen hedapenean eta erakusketan.
- Onuradunak kasu egingo die ARTgia sorgune & aretoko araei, eta bertako ordutegiei eta lan-dinamikei egokituko zaie. Horretaz gain, gizalegezko jarrera agertu beharko du, eta instalazio nahiz espazio komunak errespetatu beharko ditu. Sen onaren alde. Erabat debekatuta dago komunitatearen osasunaren kontra egiten duen edo kideekiko nahiz auzokideekiko bizikidetzaren arrunta asaldatzen duen edozein lan egitea.
- Onuradunak ARTgia sorgune & aretoarekin hitzartu beharko du ikusgai dauden lanak salgai dauden ala ez.
- Erakusketak iraun bitartean bilerak, jardunaldiak, aurkezpenak, grabaketak edo aurkezpenak egiteko eskubidea gordetzen du ARTgia sorgune & aretoak.

ARTgiaren konpromisoak

Oinarri hauetan jasotzen dena betetzeko konpromisoa hartzen du ARTgia sorgune & aretoak.



Ez betetzeak

- Oinarri hauetan ezartzen dena ez betetzeak beka etetea ekar dezake.
- ARTgia sorgune & aretoak beretzat gordetzen du deialdi hauek aldatzeko edo deialdi hauetan erregulatzen ez diren erabakiak hartzeko eskubidea; beti ere, xedea programak arrakasta edukitzea bada.

Finantzazioa

Programa hau Vitoria – Gasteizko Udalaren Kultur, Heziketa eta Kirol Sailaren 2019rako Kultur proiektu, ekitaldi eta sendotutako jaialdietarako diru-laguntzaren bidez finantzatu da.

